

## BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Nobedadea:**

Ez da existitzen zure bidaia pertsonalizatzen duen furgoneta-enpresarik. Bidaia-agentzietan bidaia erreserbatzen dizute, baina guk erreserbatzeaz gain bidaia osoa antolatzen dugu. Gainera, zer egin behar duzun momentu bakoitzean azalduko dizugu. Beste alde batetik, 24 orduko telefono zerbitzu zuzena izango dugu behar duzun guztirako.

- **Pertsonalizazioa:**

Bezeroaren beharretara egokitzen gara. Hau da, adina, zaletasunak, bezeroaren lehentasunak...kontuan hartzen ditugu dena antolatzeko. Horretarako, galdetegi bat egin dugu. Eta horren bitartez jakin dezakegu zer nahi duzun eta zure beharretara egokituko gara. Hori guztia gutxi balitz, elkarrizketa bat izango genuke dena adosteko eta aldaketa bat egin nahi izanez gero guri jakinarazteko.

- **Lana erraztea:**

Bezeroak ez du ezer antolatu behar eta ez du denbora galdu behar bidaia nola antolatuko duen pentsatzen. Bere nahiak esatearekin nahiko da.

- **Diseinua:**

Furgoneta kanperizatzen dugu. Beste enpresa batzuek furgonetaren lehen diseinua mantentzen dute eta guk kanperizatzeaz gain bidaia prestatzen dugu.

- **Prezioa:**

Poltsiko guztietara egokituta dago, eta gainera deskontuak egiten ditugu.